

SANTA BARBARAKO MAHAIK

Askotan argitaratuta dago Santa Barbaran egiten den San Juan erromeriaren sorrera 1893. urtekoa dela, erortzeko zorian zegoen ermita berreraikitzeke auzolanean obra garrantzitsuak egin zituztenean, eta bide batez, haurrentzako nekazal eskola berri bat sortu zuten eraikinari itsatsitako arkupeetan.

Esandakoa egiaztatzeke nahikoa dokumentazio daukagun arren, ia ez dakigu ezer hasierako festaren inguruan, baina iritsi zaizkigun irudi apur batzuk ikusita esan genezake erromeria barruraino sartu zela herritarren artean.

Hasiera batean, gaur egun bezala, San Juan egunean udalbatzak udal kleroari laguntzen zion igoeran, txistulariak eta dantzariak aurretik zirela, errege bidetik ermitaraino igotzen zutelarik. Elizkizunaren ondoren, erromeriari ematen zitzaion hasiera.

Baina Santa Barbarako kanpa deitzen dioguna ez da gaur egun ikusten duguna. Garai haietan, 1931. urtera arte, Udalaren lursaila ermitako eta Errege Bideko ate-aurrea besterik ez zen, eta Errege Bidea bera oraingoa baino askoz ere estuagoa.

Horrela, bada, horiek izan ezik, ermita inguruko lursail guztiak Mendizabal baserrikoak ziren. Eta hantxe pilatzen zen jendea, beste tokirik ez zegoen eta. Errege Bidean bertan kokatzen ziren bertsolariak, eta txistulariek goxatzen zuten eguna.

Ondo asko dakigu egun horretan udalak bazkaria zuela enkargatuta udalbatzarentzat, kleroarentzat, abeslarientzat (bertsolariak), musikarientzat (txistulariak) eta dantzarientzat. Dena den, menua desberdina izaten zen, taldearen arabera. Hau da, urte batzuetan prezio ezberdineko menuak izan ohi ziren, bazkaria talde batentzat edo beste batentzat izan.

Eta gainontzeko herritarrak? Ez dakigu seguru, baina zaila da pentsatzea erromeriaz gozatu gabe jaitsiko zirenik; izan ere, asko kostatzen zen igotzea, eta gutxienez aukera aprobetxatu. Eta hantxe, sakabanatuta, baserritarren sailetan igarotzen zuten eguna.

Baina ez zegoen mahairik, orain ikusten ditugun bezala. Familia eta koadrila bakoitza ahal zuen moduan moldatzen zen. Eta den-dena astoan, bizkarrean edo eskuetan igo behar izaten zen; garai hartan ez zegoen errepiderik, ezta kotxerik ere.

1931ra arte izango zen horrela. Errepublika estreinatu berritan, Udal berriak Sasieta baserriko jabearekin negoziatu zuen, gutxi gorabehera 3.000 m²-ko lursaila erosteko, erromeria egunean herriak urtero erabiltzen zuen saila hain zuzen ere. Gaur egungo taberna aurrean eta bidearen azpialdean dagoen lurzatia da. Baita ere gaur egun haurren parkea eta toka dagoen gunea, baina lehen bolatokia egon zen. Nolabait esateko, San Juan egunean jendeak erabiltzen zuen zerbait arautzea izan zen.

Baina, ez zen mahairik jarri, eta beraz, bakoitza ahal zuen moduan moldatzen zen: oholekin, harriekin, teilekin, eta behar izanez gero lurrean bertan. Gainera, oso eguraldi txarra ateratzen bazen, baserritarrek euren laguntza eskaintzen zuten, baserriko ganbara edo ikulua utziz bazkaria egiteko. Eurentzako ere egun alaia zen, egunerokoa hausteko.

Non bazkaltzen zuten korporazioak eta gonbidatuek tabernarik eta antzekorik ez bazegoen? Ez dakigu, baina seguruenik arkupeetan, edo egurrezko mahairen bat egingo zuten. Eta eguraldi txarra

ateratzen bazen, eskolan bertan izan zitekeen, baina sekula ere ez ermita barruan, toki sakratua zen eta.

Eta horrelaxe jarraitu zuen gerra ondoren: jendeak "Errege Bidea" erabiltzen zuen igotzeko eta ohiko jaitsiera egiteko ere bai.

Dena den, Errege Bidea nahiko zaharkitua zegoen. Malda handia zuen, zati handi batean harritsuak. Ezin zen horrela ibili, ohol batzuekin mahaia egin eta gero bazkaria egiteko.

Eta bitzta honetan gauzak kostatzen baldin badira ere, egia esan, dena aldatu zen urtebetean, gaurko ikuspegitik ikusita. Gogoan izan. 1954. urtean dena aldatu zen; urte horretan ireki zuten gaur egungo errepidea, Nekolalde kaletik Santa Barbarako ermitaraino daramana. Ez zen lan erraza izan, udalak 10 urtetik gora baitzeraman tramite burokratikoetan Aldundiaren aurrean.

Iraultza handia izan zen. Mundu guztiak irabazi zuen. Baserritarrentzat beraien produktuak eta basokoak herrira gerturatzeko, eta kaletarrek, berriz, bide erosoak aurkitu zuten Santa Barbarako kanpara igotzeko, lehengo esfortzurik egin gabe.

Harrez gero, kotxez (oso kotxe gutxi zegoen) edo kamioiez igo zitekeen material guztia goraino.

Beraz, gaur egungo hormigoizko mahaien sorrera errepidearen amaierari lotu behar zaio. Eta urte batzuk geroago lehen taberna, ostatua, ireki zuten, eta Irimoko Gurutzea egin zuten. Ez zen gauza bera Santa Barbaraino materiala kamioian igotzea edo herritik bertatik idi-gurdian igotzea. Ez ziren konparagarriak ez denbora, ez esfortzua, ezta zamaren pisua ere.

Hemendik aurrera, mahaiei bakarrik helduko diegu, eta kronologia bat ezartzen saiatuko gara, nahiz eta akatsak egin, baina seguruenik izango da jendea hori zuzentzen lagunduko diguna.

IRIMO Elkarte Artistiko Musikala, "La Torcida" izenez ezagutzen zena, izango zen hasiera eman ziona.

Elgarresta eta Plazaola sendien, eta "La Torcida" elkarteko beste bazkide batzuen ekimenez, lehenengo mahaia eraiki zen Agerreko bidean, Iturbe Goikoa baserriko lur sailetan. Burdinezko forjatua duen hormigoizko mahai horrek plaka bat darama SD IRIMO izenarekin, baina datarik gabe.

1954. urtean bertan eraiki izango zuten, nahiz eta informatzaileren batek dioen agian urte pare bat lehenago izango zela. Pertsonalki zaila iruditzen zait, orain arte azaldutako arrazoiengatik. Ez da gauza bera pisu handi bat herritik idi-gurdian igotzea edo kamioian igotzea Santa Barbara bertaraino. Gauza batekin denak bat datoz: mahai hori Irimo elkarteak erabili zuela 1960ra arte, urte horretan "La Torcidak" beste mahai bat eraiki baitzuen, ia mundu guztiak "beletarena" ezagutu izan duena, kanpatik gertuko mendi txiki batean.

Seguruenik hormigoizko bigarren mahaia UR-GAIN elkarteari dagokio; mahai hori Udalaren sailean dago, gauza sinestezina, horren truke udalari beste zerbaitekin egin ez bazioten behintzat. Beraiek egin zutela diote, baina udaletxeko akta liburuetan ez dago inongo akordiorik mahai hura jasotzeko baimena ematen duenik. Nolanahi ere, data duen mahairik zaharrena da: 1956 urtea darama. Istorio hau kontatu didan informanteek ez didate horren arrazoirik eman, ez dutela inoiz entzun.

1960. urtean "La Torcida" elkarteak bere mahai ezagunena eraiki zuen. Herrian bertan egin zen, eta Pablo Berriotxoaren UNIMOG kamioian igo zuten. Borobila zen, hormigoizkoa burdinsarearekin, Ramon Maiztegik egina; gero, Moises Mazmelak eta Angel Jauregik egindako altzairu herdoilgaitzezko haize-orratza jarri zioten, seguruenik kanposantutik gertu zegoen Ema tailerrean egina. Horrez gain toldoa jartzeko hagaxka batzuk zituen, eta baliteke kristalera ere izatea. Ipeñarrieta Dorrea baserriaren sailean zegoen mendixka batean, eta gero hor jaiotako Jesusa

Izagirrearen esku geratu ziren sailak. 1974an, aparkalekuak egiteko eta Pagoetatik Santa Barbarara joateko proiektatu behar zuten errepide berria bukatzeko erosi genizkion sail horiek. 1974. urtean mahaia desmuntatu nahi izan zuten, Maiztegi jauna alkate zela, baina mahaia kargatzeko maniobra oker bat egitean erori egin izango zitzaien eta hainbat zatitan puskatu, erabili ezinik geratu zelarik. Haize-orratza, aldiz, gaur egun Brinkolan egon behar du.

Hurrengo urtean, 1961ean, Juan Cruz Mendiolaren eta beste batzuen ekimenez, hiru mahai egin zituzten Mendizabal baserriaren sailetan. Bat Mendiola sendiarentzat, beste bat horien lehengusu ziren Salegitarrentzat, eta hirugarrena Gaspar Gabilondoren sendiarentzat. Bi plaka zeuden. Mendiolaren mahaikoa altxatuta dago, Salegiren mahaian ez dago ezer, eta Gabilondotarren mahaian ozta-ozta irakur daiteke 7-7-1961 Gabilondo sendia.

Ramon Mendiolaren ustez hiru mahai horiek jarraian dauden beste hirurak baino lehenago egin ziren, hauek ere Mendizabalgo sailean, baina datarik esan gabe. Azken hiru horietan bi plaka daude, eta kenduta dagoen hirugarren baten arrastoa ere badago. Batean Bar Navarro jartzen du, eta bestean, Euskaldun Talde Bat. Dena den, Mendizabalgo sailetan jarrita dauden mahai horiek udalarenak (gainaldetik daudenak, alegia) baino zaharragoak al diren galdetu nionean, ez zidan erantzunik eman. Ramon Maiztegiren iritzirako, Udalarenak Ur- Gainekoaren garaikoak izango lirateke, eta seguruenik Mendiola eraikitzaileak egingo zituen.

Navarro tabernaren mahaiak badu bere berezitasuna. Hasiera batean ez omen zen bazkariak egiteko mahaia izan, taberna bat instalatzeko oinarria baizik, hain zuzen ere kanpara igotzen zirenei edariak saltzeko. Navarro taberna zeukaten Bernarda eta Maritxu Artola Echarri ahizpak izan ziren mahai hori egitea agindu zutenak. Hantxe uzten ziren botailak eta beste tresna batzuk, Jose Gracia, Bernardaren senarrak, kamioian igotzen zituenak. Seguruenik horrek berak, Jose Maria Iturrioz bere koinatuarekin batera, egingo zuten mahaia.

1969. urtean, Esteban Larrañaga Badiolak eta koadrilak udal sailetan mahai bat jartzeko baimena eskatu zuten, bolatokia dagoen tokitik gertu. Ukatu egin zitzaion; udalak esan zion udalaren sailean mahai batzuk egiteko proiektua zegoela, eta hortaz ez zuela komenigarri ikusten sail hartan beste mahairik eraikitzea.

1970ean beste mahai berri bat egin zuten Mendizabal baserriaren lur sailetan. Ramon Arbizuren esanetan, aspertuta zeuden parrila teilarekin egiten, beti puskatzen zena, eta urtero egurrezko mahaia egiten, kendu eta jarri. Plakak honako hau dio: 24-06-1970, Pospolin. Berez, hainbat koadrila ziren, eta gero gaur egungo Etxe-Azpi Elkartean elkartu ziren.

Erromeriaren unerik gorenak ziren. Hirurogei-hirurogeita hamarreko hamarkada, oroimin haundiz gogoratutako urteak.

Horrekin batera, lur sailak erosten jarraitu zuen udalak. 1956an, errepara ezazue berriro data, Nazario Alcorta alkateak sail baten zati bat erosi zion Leoncio Sasietari, ermitaren eta tabernaren gainean dagoen saila hain zuzen ere. Hasiera batean nekazal eskola egiteko zen, baina sekula ez zen egin, eta aisialdiko kanparako aprobetxatu zen. 1963an, Gabiriako biztanle eta zuhaitz mintegia zuen Jose Oñativari haritz amerikar motako 32 landare erosi genizkion, plaza azpian kokaturik daudenak. 1974an, Jesusa Izagirreri erosi genion saila, lehen esan dugun bezala. Geroago, Juanito Arbizuren garaian, sailak erosten jarraitu genuen, Claudio Sasietari eta Mari Paz Etxanizi. 90eko hamarkadan beste sail batzuk erosi genituen, hauek ere Claudio Sasietari.

Ramon Arbizuk kontatua dit, bera alkate zela, Pitxi udal langileak hiru mahai egitea eskaini ziola, hormigoizko beste haien ezberdinak. Borobilak izango lirateke. Ramonek ez zuen bi aldiz pentsatu eta obran bertan jarri zion materiala. 1991. urtea izan zitekeen. Gainontzeko mahaiak geroago egin ziren, baina prefabrikatuta zetozen. Bakarrik muntatu egin behar ziren. Haiekin batera, sua egiteko parrila batzuk jarri ziren.

Azken emaitza ederki ikusten da. Santa Barbara inguruan udal berdegune bat, jendeak bisitatu eta hango paisaiatz goza dezan.

Baina ez zen egun bateko lana izan. Beste garai batzuk, ohitura zaharrak eta geroko nahiak, eta bereziki “datozenak jarraituko dute”, abesti ospetsuak zioen bezala; aurten ere bete daitezela eta egun eder bat izan dezagula.

Koldo Argandoña

Urretxu, 2016-05-17